

## 2013-03-04ko EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko martxoaren lauan, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ezohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu, Tomás Etxeberria eta Olaia Nieto.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxienerako partaide-kopurua bertaratu baita.

### LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2013-01-29). 2013ko urtarrilaren 29ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

### BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2013ko 12 zenbakitik 25. zenbakira bitartekoak.

## HIRUGARREN GAIA

### **2013ko MARTXOAK 8A – ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-**

Irurako Udaleko Bildu udal-taldeak honako adierazpen instituzionala aurkezten du, 2013ko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko eguna dela-eta:

“Euskal Herriko emakumeak krisi sistemiko batean murgilduta bizi dira, eta, egoera horren aurrean, Irurako Udal honetatik gogora ekarri nahi dugu martxoaren 8ko oroitzapenak esparru jakin batean kokatu behar direla, hain zuzen ere feministek emakume guztientzako eskubideen alde betidanik sustatutako aldarrikapenaren eta erresistentziaren esparruan.

Emakume feministek 1908an aldarrikatutako errebindikazio horrek indarrean jarraitzen du 2013an, are indar handiagoarekin gainera, eta horregatik lanean jarraitu behar dugu, era askotara zapaltzen eta menderatzen gaituen sistema kapitalista eta patriarkala errotik aldatzeko.

Eta borroka hori are garrantzitsuagoa da, halaber, behin eta berriz aplikatzen ari diren dekretuak, erreformak eta gizarte-murrizketak kontuan hartzen baditugu, urtetako borrokan gizartearen, lanaren, ekonomiaren eta politikaren arloetan irabazitako eskubideen zuzeneko galera dakarten neurrian. Finantzek eztanda egin eta zorraren iruzurra nabarmendu aurretik, emakumeok bide luzea genuen egiteko, eskubide guztiak geureganatu eta lortzeko. Alabaina, une honetan atzera egiten ari gara, diskurtso atzerakoi batek emakumeok berriz ere adingabe moduan tratatu nahi gaituelako, erabakitzeke gaitasunik gabe eta bizimodu prekario batera kondenatuta.

Atzerakada horren adierazgarri ditugu, batetik, abortuaren legearen erreforma iragartzen ari direla, erreforma ultrakontserbadorea eta eliza katolikoaren agintarien eskutik datorrena, eta, bestetik, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko laguntzetarako egundoko murrizketak, lan horren karga berriz ere familien —eta familien barruan, emakumeen— esku utziko duena, eta, horrenbestez, emakumeok prekaritate handiko eta errekonozimendu txikiko jardun horretan aritzera behartuko gaituena.

Urtero-urtero, martxoaren 8an emakumeok borroka feminista eguneratzen dugu, mundu berri bat sortzeko bidean. Mundu berri horretan, emakumeok gure bizitzaren eta gure gorputzaren jabe izango gara, bizimodu duina izango dugu, gure orain ekonomiko eta soziala eraikiko dugu, eta, edonon gaudela ere, subjektu politikoak eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragileak izango gara.

Gure ustez, xede horiek guztiak lortzeko, funtsezkoa eta estrategikoa da erakundeek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzea, eta, ildo horretan, argi eta garbi adierazi nahi dugu toki-erakundeen eskutik xede horretarako programak eta baliabideak kentzeko asmoarekin etor litekeen erreforma oro guztiz gaitzetsi egingo dugula.

Gainera, Udal honek honako lehentasun hauek ere baditu:

- berdintasunerako politika publikoak garatzea, politika horien eskura aurrekontu eta teknikari egokiak jarritz.

- programak eta proiektuak aztertu, garatu eta ebaluatzerakoan udalaren gobernu-ekintza orok genero-ikuspegia kontuan hartzeko neurriak bultzatzea.

- emakumeen elkarrekin eta mugimendu feministarekiko elkarrekin politika indartzea.

- indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko politikak eta berdintasunerako politikak etengabe uztartzea.

Azkenik, mugimendu feministak betidanik emakumeen eskubideen alde egindako erresistentzia eta borroka eskertu nahi dugu, eta, ildo horretatik, mugimendu horrek gure herrian martxoaren 8rako egindako deialdiarekin bat egiten dugu.”

Udalbatzak mozioa onartu du, aho batez.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

## LAUGARREN GAIA

### **PAROT DOKTRINAREN MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-**

“Irurako Udaleko Bildu udal-taldeak honako mozioa aurkezten du:

#### **“197/2006 DOKTRINA: ZIGOR GEHIGARRIAREN ANKERKERIA**

2006ean, Espainiako Auzitegi Gorenak, kode penal zaharrear epaituriko presoek zegozkien erredentzioak, kode hark ezartzen bete beharreko gehienezko 30 urteei baino, ezarritako kondena osoari aplikatzeko doktrina ebatzi zuen. Hau da, 1973-ko kode penalak, kondena kunplitzeko gehienezko urte kopurua 30 urteetan ezartzen zuen eta erredentzioen bidez, bete beharreko urte kopurua jaisten zen. Erredentzioen aplikazioak bete beharreko kondena 15 urtetan ezartzen zuen automatikoki, eta horrez gain, erredentzio gehiago eskuratu zitezkeen ikasketekin edo bestelako jarduerekin, bete beharreko kartzelaldi denbora jaitxiz.

1995ean eta 2003an kode penalean aldaketak eman ziren. Aldaketa horiek euskal presoek aurkako neurriak gogortzera bideraturik zeuden, preso diren pertsonen dagozkien eskubideak salbuespenez murriztuz. 95-ean kondena betetzeko urte mugak 30, 25 eta 20 urteetan ezarri, eta erredentzioak desagertu egin ziren. 2003-an berriz, kondena betetzeko muga 40 urtera igo zen.

Kode penal berriak ezarritako neurriak ez direnez erretroaktiboak, hau da, ezin direnez aplikatu aurretiaz epaituriko pertsonen aurka, Auzitegi Gorenak 197/2006 doktrina erabili zuen ateratzear zeuden euskal presoek kondena luzatzeko.

Ordutik hona, 83 euskal preso politikori ezarri zaie doktrina. Horietako 12, garaian ezarritako kondenaz gain doktrinaren kondena luzapena bete ostean atera dira kalera. Gaur egun, 67 dira doktrina hau aplikaturik kartzelan aurkitzen diren presoak. Horietatik 54 kondenaren luzapena ari dira betetzen, eta beste 13-ri doktrina aplikatu zaie ezarri zitzaizen kondena bete aurretik. Beste 4 lagun kalean daude, baina doktrina ezarria dute.

Doktrina honen bidez, euskal presoek aurka bizi arteko zigorra aplikatzen da. Ondorioak aski krudelak dira, 95 izanik 20 urte baino gehiagoko espetxealdiak igaro dituzten pertsonak. Gaur egun 29 presok 25 urte baino gehiago daramazkete espetxean. Neurri honek, oinarrizko giza eskubide denak urratzen ditu. 20 urtetik gora espetxean emateak itzuliezinak diren ondorio fisiko eta psikologikoak dakartzala frogatua dago.

### **ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN EBAZPENA 197/2006 DOKTRINARI BURUZ**

**2012an** Auzitegi Konstituzional espainolak, 2006an indarrean jarritako doktrinaren kontrako helegiteak ebatzi ditu, doktrinaren aplikazioa babestuz. Bere ebazpenean ez du doktrinaren funtsari buruzko azalpenik ematen eta irizpidea aldatzeko aukera, tribunalei dagokiela argudiatzen du.

Auzitegi Konstituzionalak, 47 erabaki jakinarazi ditu (beste 20 kasu erabakitzeke). Horietatik 3 tramitera hartzea ukatuak izan dira, 22 tramitera onartuak, eta beste 3ren kasuan anparoa onartua izan da, hiru preso hauek kalera atera direlarik. Beste 19 kasu ukatuak izan dira.

### **ESTRASBURGOKO GIZA ESKUBIDEEN TRIBUNALAREN EBAZPENA**

Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak ordea, Ines Del Río euskal presoaren kasuan oinarriturik, 197/2006 doktrina ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi zuen 2012ko uztailean. Ebazpena, AHO BATEKOA izan zen.

Tribunal honen ebazpenak, doktrinak, askatasunerako eta segurtasunerako oinarrizko eskubideak urratzen dituela dio, eta ez dela legezkoa aurrez ezarritako zigorra luzatzea. Ines del Río preso berehala aske uztea eta 30.000 euroekin kalte moralak berrezartzea ebazten du era berean.

Ebazpenaren eragina ez da Inesen kasura mugatzen, doktrinaren funtsa aztertu ondoren eta berau jotzen bait du, ez legezko. Horrek doktrina bera, bertan behera uzteko bidea zabaltzen du; formalki Espainiar gobernuaren esku dagoen erabakia da hori.

Edonola ere, Ines del Ríoaren inguruko ebazpena LOTESLEA DA, Europako Giza Eskubideen Konbentzioaren 46. artikulua, ESTATUAK GORTEAREN EBAZPENAK ONARTZERA BEHATZEN BAIT DITU.

Espainiako Estatuak helegitea tarteratu du. Helegite hau, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalan berrikusiko da datorren

martxoaren 20. Tarte horretan Ines del Rio kartzelan mantentzera ere, espainiar estatuak egiten duen beste lege-hauste bat gehiago da.

Estatu batek Estrasburgoko Tribunalaren ebazpen bat ez onartzea eskandalu politiko eta juridiko izugarria da. Espainiar estatuak gai honen aurrean duen jarrerak agerian uzten du euskal presoek aurka salbuespeneko legedia eta bitartekoak aplikatzen direla. Presoek eta beraien senitartekoek dituzten eskubideak urratuaz eta nazioarteko Giza Eskubideen Arauen gainetik pasaz.

Honen aurrean Irurako Udalak honako erabaki hau hartzen du:

1.- 2012ko uztailean, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak, aho batez, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina (Parot doktrina gisa ezagutu dena), ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berau bertan behera uzteko eskatzen du udal honek. Ondorioz eta nazioarteko giza eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu.

2.- Euskal Herrian bizi dugun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoek aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek.

3.- Ebazpen honen berri, herritarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisionatua den Nils Muiznieks Jaunari ematea erabakitzen da.”

Udalbatzak mozioa onartu du, aho batez.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

## **BOSGARREN GAIA**

### **GEUREA IKURRIÑA, MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-**

“Irurako Udaleko Bildu udal-taldeak honako mozioa aurkezten du:

“Ez gara mapetan agertzen, baina egunero egunkarietako azalak betetzen ditugu. Beste edozein lurralderen pareko garelako diote, baina gure hizkuntzan mintzatzen garenean ez gaituzte ulertzen. Gure artean ezberdinak garelako diote, baina ez dago ibai ez eta mendirik banatzen gaituenik.

3.000.000 euskal herritarrek osatzen dugun nazioak Euskal Herria izena du. 21.000 km<sup>2</sup> barna bizi gara nahiz eta bi estatu eta lau zatitan banatzen gaituzten. Ez gaituzte ulertzen, baina gure izate eta nortasuna ezabatzeko helburuari eusten diote, oso modu eta era ezberdinetan tratatzen gaituzten harren.

Lapurdi Behe Nafarroa eta Zuberoan; Ikurrina mamiz hustu eta folkloreaken baitan ito nahi duten ikur gisa darabilte, betiere izaera ofizialeko kokaguneetatik urrun.

Nafarroa Garaian; Ikurrina legez debekaturiko ikurra da. Beraz ez dago euskal ikur hau eraikin publikoetan agertzerik. Gainera, lurralde hori kudeatzen duten administrazioetatik, eraikin publikoetan espainiar ikurra jartzera behartu nahi gaituzte.

Araba Bizkaia eta Gipuzkoan berriz, Ikurrina, Espainiar agintearen menpeko ikurra dela agertu nahian, legez behartu nahi gaituzte instituzio publiko guztietan Ikurrinaren alboan Espainiar bandera jartzera. Eta horren adibideak hiru herrialdetako instituzio ezberdinetan aurkitu ditzakegu, bai Udaletan bai eta Foru Aldundietan.

Euskal Herria desagerrarazi nahi dute eta horretarako euskal herritarrak desagerrarazi behar dituzte.

Horregatik inposatzen dizkigute beraien ikurrak, gureak bailira hartu ditzagun, gureak direla sinetsi dezagun. Gure ikurrekin batera agertzen dizkigute, hasieran pareko bailira, ondoren mendeko izateko.

Geurea Ikurriña! Ikurrinak Euskal Herri osoa eta euskal gizartearen gehiengoa batzen duen bitartean, espainiar banderak, inposaketa, errepresioa eta erabakitzeko dugun eskubidearen ukazioa barnebiltzen ditu. Hego Euskal Herrian, bandera espainiarra da gatazka eta talka sortzaile den ikurra.

Horregatik gure ustetan, euskal instituzioetan Ikurrinak egon behar du, beste euskal ikurrekin batera eta ez inposaturiko atzerriko banderek.

Euskal Herritarroi dagokigu gureak diren nortasun ikurren defentsa burutzea. Ez gara espainiarrak ez eta frantsesak, euskal herritarrak gara eta gure herriaren eta bere etorkizunaren jabe izan nahi dugu.

BAI EUSKAL HERRIARI herri ekimena  
www.baieuskalherriari.org  
www.baieuskalherriari.org

Hau dela eta ondorengo adierazpenak aurkezten dizkiogu osoko bilkurari onar ditzan:

- Udal honetatik, euskal nortasuna eta gure nazioaren izatea ukatu nahi dutenen aurrean zutitzeko deia luzatzen diogu euskal jendarteari. Inposaketen aurrean herri gisa erantzutea ezinbestekoa da eta zentzu honetan antolatzen diren egitasmo guztietan parte hartzeko deia luzatzen dugu.

- Udaletik, Euskal Herriaren aitortza eta burujabetza lortzeko lan egin, eta euskal herritarron nortasun eta identitate zeinuak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu. Nazio gisa agertzen gaituzten ikurrak babestu eta zabaltzeko neurri zehatzak abian jarriaz:

- o Udal honek, herriko jaietan nahiz Aberri egunaren testu inguruan, herritarrei Ikurriña eta euskal ikurrak etxetako balkoietan zintzilikatzeko deia egingo die.

- o Udal honek, Ikurriñaren erabilera sustatzeko bitartekoak jarriko ditu.

- o Udal honek inposaketaren aurrean, herritarrak kalera ateratzea deituko ditu:

- \_ 2013ko martxoaren 9an, eguerdiko 12:00etan INPOSAKETARIK EZ, GEUREA IKURRIÑA! Lelopen, Tolosan egitekoa den manifestazioarekin bat egin eta herritarrak parte hartzera deitzen ditu.

- EUSKAL HERRIA, IZENA ETA IZANA elkar uztartzea ezinbestekoa da gure herriaren etorkizunerako. Horregatik, egunez egun gure izatearen isla diren nortasun ikurrak agertzea, aldarrikatzea eta erabiltzeak bere biziko garrantzia du gure herriarentzat. Bide berean, Euskal Herri osoko herritarrei inposaketari aurre egiteko deia luzatzen dizuegu. Estatuetatik eratorririko inposaketak salatuaz eta geureak diren nortasun ikurrak erabili eta zabalduaz.

Bakoitzak bere esparrutik euskal herritarron eskubideen defentsan aritzeko beharra agertu nahi dugu.

INPOSAKETARIK EZ! GEUREA IKURRIÑA!"

Udalbatzak mozioa onartu du, aho batez.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

## SEIGARREN GAIA

22/13ZKA.DUN DEKRETUA BERREZTEA, HALA BADAGOKIO.-

Alkatearen 22/13 zka.dun 2013ko otsailaren 25eko dekretuaren berri ematen da:

“Construcciones Antia SL enpresak burututako “Irurako Trinketa birmoldatzeko 1. fasea” izeneko egikaritze- obrari dagokionez, aintzat hartuta obra 2012ko irailaren 14ean amaitu zela eta obra-amaieran akatsak antzeman zirela, Udal honek, 2012ko abenduaren 18ko 187/2012 Alkatetza Dekretu bidez, akats horiek 15 eguneko epean konpontzeko eskatu zuen, ohartaraziz horrela egin ezean kontratua amaitutzat eman zezakeela.

Horri erantzunez, kontratistak alegatu du lehiaketa-fasean dagoela, eta antzemandako akatsak puntualak direla, ez ordea funtsezkoak; hortaz, Udalak egin ditzala konpontze-lanak, kostua ordaindu gabe dagoen azkeneko ziurtagiritik kenduta, eta gainontzekoa azkeneko ziurtagirian ordain dadila; halaber, adierazi du ez dela bidezkoa kontratua amaitzea.

Alkatetza honek adierazi du Udalak larriki kalifikatu duela elektrizitate- eta berogailu-instalazioak legeztatu ez izana; dena den, ez du ebazpen-espedituari hasiera emateko erabakirik hartu, eta, halaber, formalki aitortu du obra hartu duela eta bermepea zabaldu dela.

Ikusita idazkariaren/kontu-hartzailearen txostena.

Indarrean dagoen legediak jasotako eskumenak betez,

### EBAZPENA

Lehen.- Obra formalki hartzea,

“En relación con la obra de ejecución de “1ª Fase de Remodelación del Trinkete de Irura” ejecutada por la empresa Construcciones Antia S.L. y habiendo concluido la obra con fecha 14 de septiembre de 2012, este Ayuntamiento mediante Decreto de Alcaldía nº 187/2012 de fecha 18 de diciembre de 2012 y habiéndose observado defectos en la terminación, le requirió para que subsanase los mismos en el plazo de 15 días y así mismo se le advierte que el incumplimiento del mismo podría dar lugar a la resolución del contrato.

En contestación a la misma, la contratista alega lo siguiente: Que se encuentra en situación concursal, que los defectos observados son puntuales y no sustanciales, que las reparaciones se efectúen por el Ayuntamiento descontándose de la última certificación, pendiente de abonar, que no procede la resolución del contrato y que se abone el resto de la última certificación.

Esta Alcaldía debe de señalar lo siguiente: El hecho de no legalización de las instalaciones de electricidad y calefacción, este Ayuntamiento lo califica de grave, aún y todo no opta por el inicio del expediente de resolución y declara formalmente la recepción de la obra y la apertura del periodo de garantía.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

De acuerdo con las facultades señaladas en la legislación vigente,

### RESOLUCION

Primero.-Recepcionar formalmente la

2012ko irailaren 14an, eta data horretatik berme-epari hasiera ematea. Berme-epa urte betekoa izango da.

Enpresa lehiaketa-fasean dagoenez, berme-epaan egin beharreko konpontze-lanak Udalak berak egingo ditu, eta haien kostua ordaindu gabeko azkeneko ziurtagiritik kenduko da.

Horrenbestez, eta haien zenbatekoa jakin gabe, azkeneko ziurtagiriaren ordainketa osoa atxikitzea.

Berme-epa amaitzean dagoela, obraren zuzendariek txostena idatziko du, obraren egoera jasota utziz.

Bigarrena.- Espediente osoa aintzat hartuta, eta akordio hau hartzeko edo ez hartzeko beharra ikusita, kontratistaren idazkia alegaziotzat jotzea, eta akordio hau ebazpen berriztatuz, berraztertzearen errekurtso berria ezartzeko aukera emanaz.

Halaber, ebazpen honen berri ematea obra-zuzendaritzari.

Hirugarrena.- Udaltzari ohartaraztea hurrengo bileran, ebazpena berrets dezan, hala badagokio, kontratazio-organoa den aldetik.

Akordioa behin betikoa da administrazioan."

Hori dela eta udaltzak aho batez berrestea erabaki du.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

obra con fecha 14 de septiembre de 2012 y comenzar desde esa fecha el periodo de garantía que será de 1 año.

Dada la situación concursal de la empresa las reparaciones que hayan de realizarse en el periodo de garantía se realizarán por el propio Ayuntamiento y a descontar de la última certificación no abonada.

En consecuencia y desconociendo el importe de los mismos, retener el pago de la totalidad de la última certificación.

A punto de cumplirse el periodo de garantía el director facultativo de la obra redactará un informe sobre el estado de las obras.

Segundo.-Considerándose el conjunto del expediente y dada la necesidad de adoptar o no este acuerdo, tomar el escrito del contratista como alegaciones y considerar este acuerdo como nueva resolución, posibilitando la interposición de nuevo recurso de reposición.

Así mismo notificar la presente a la dirección facultativa de la obra.

Tercero,. Dar cuenta al Pleno en la siguiente sesión que celebre para su ratificación, si procede, al ser el órgano de contratación.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa."

## ZAZPIGARREN GAIA

### 23/13ZKA.DUN DEKRETUA BERREZTEA, HALA BADAGOKIO.-

Alkatearen 23/13 zka. dun 2013ko otsailaren 25eko dekretuaren berri ematen da:

"Izurako Trinketa Birmoldatzeko

"En relación con la ejecución de la



1. fasea" izeneko obra-egikaritzapenari dagokionez, ikusita haren egikaritzapena atzeratu dela, zigorrak ezartzeko espedientea abiarazi da.

Txostena idatzi da, 5.292,75 euroko zigor-ezarpena proposatuz.

Interesdunari audientzia-izapidea eman eta gero, kontratistak (Construcciones Antia S.L.) adierazi du izapidetze-prozesuan dagoenez, zigorraren —hala badagokio—berri eman behar zaiola Lehiaketa Administrazioari, masa pasiboaren barnean sartzeko eta lehiaketa-prozesuaren emaitzaren zain geratzeko.

Ildo beretik, esan behar da Lehiaketa Legearen 67.1 artikulua jasotakoaren arabera, "zordunaren eta herri administrazioen arteko administrazio-kontratuei buruzko lehiaketa-aitorpenaren ondorioak legedia bereziak jasotakoaren arabera arautuko direla".

Hori horrela, eta ikusita idazkariaren/kontu-hartzailearen txostena.

Indarrean dagoen legediak jasotako eskumenak betez,

**ERABAKI DUT.**

Lehen.- Construcciones Antia SL kontratistari 5.292,75 euroko zigorra ezartzea, obra-egikaritzapenean atzeratu delako.

Zigorra berehala betearaziko da, eta ordaindu gabe dagoen azkeneko obra-ziurtagiria kenduta ordainduko da, edo subsidiarioki, behin betiko bermean.

Bigarrena.- Udaltzari

obra de "1ª Fase de Remodelación del Trinkete de Irura" y visto la demora en su ejecución, se ha iniciado expediente para imposición de penalidades por ese motivo.

Se ha realizado informe en el que se propone la imposición de una sanción de 5.292,75 euros.

Habiéndose realizado el trámite de audiencia al interesado, el contratista (Construcciones Antia S.L.), señala que al estar la misma en proceso concursal, que la sanción, en su caso, debe de comunicarse a la Administración Concursal para integrarse en la masa pasiva y estarse a resultados del proceso concursal.

En este sentido debe de responderse que de acuerdo con lo dispuesto en el art. 67.1 de la Ley Concursal que "los efectos de la declaración de concurso sobre los contratos de carácter administrativo celebrados por el deudor con Administraciones Públicas se regirán por lo establecido en su legislación especial".

Ante ello, y visto el informe del Secretario-Interventor.

De acuerdo con las competencias señaladas en la legislación vigente,

**RESUELVO.**

Primero.-Imponer la penalidad de 5.292,75 euros por demora en la ejecución de la obra a la contratista Construcciones Antia S.L.

La sanción será inmediatamente ejecutiva y se abonará mediante deducción de la última certificación de obra, pendiente de abonar, o subsidiariamente sobre la garantía definitiva.

Segundo.-Dar cuenta al Pleno en la

ohartaraztea hurrengo bileran, ebazpena berrets dezan, hala badagokio, kontratazio-organoa den aldetik.

siguiente sesión que celebre para su ratificación, si procede, al ser el órgano de contratación.

Akordioa behin betikoa da administrazioan.”

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.”

Hori dela eta udalbatzak aho batez berrestea erabaki du.  
Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

## ZORTZIGARREN GAIA

**GALDE-ERREGUAK.-** Gai hau tratatzen da:

a) Alkateak jakinarazten du Hernialdeko Udalaren idazkari-kontuhartzailea lanerako ezgaitasun egoeran dagoela eta lanpostua bete dezan, udal honetako idazkari-kontuhartzaileak metaketako erregimenean egingo duela, pertsona hau sendatu arte.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:05ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta, idazkari gisa, dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA